

Neolitoko erlijiotasuna

El Neolítico fue descrito en su momento como la “Edad de la piedra nueva” (1866), pero aquella escueta definición ha resultado insuficiente tras los descubrimientos arqueológicos posteriores. Hace tiempo que Childe forjó el concepto de “la revolución neolítica” (1920), para entender mejor lo que supuso aquel período extremadamente complejo por sus mejoras técnicas, económicas, sociales y culturales, entre las que la religión ocupó lugar relevante.

Artean Historiari iritsi gabe (hau da, agiri idatzirik ez zegoela), Mesolito-Neolitoa (-7.800/-2.100) gizadiaren aldakuntza handietako bat izan zen, eta gaur egun “Iraultza neolitotarrak” hitz egin ohi da garai hura hobeki ulertzeko, nahiz eta gero orduan gertatutakoaren arazoak historialari guztiek era berean ez dituzten ematen (batzuentzat klima-aldakuntzaren ondorioa izan zen, beste-erentzat demografiaren hazkundeak bultzatuta gertatu zen, eta abar)

Neolito aberatsa

Aurrerakuntza txundigarria izan zen Neolitoa, eta alde askotatik oso aberats eta erabakiorra orduko eta ondoko gizon-emakumeentzat. Esango genuke gizakia zinez orduan hasi zela bere biziera eta etorkizuna eskuetan hartzen, teknika eta pentsamendu berrituen bidez bizitza bere gisara moldatzen, izadiaren mendekotasunetik askatuago.

Esan bezala, garaiko tresnetan harlandu “leundu” da Neolitoaren ezaugarri jakinena, garaiko tresna-lantegietako abilezia berria nabarmenago erakusten diguna; baina funtsezkoagoak eta gero-erabakigarriagoak diren bestelako –mota guztietako– ezaugarriak aipatu beharra dago.

Ordurarte naturak bere gisara emandakoez baliaturik bizi izan zen gizakia: basa-landare eta fruituen bilketa eta basa-abereen ehiza ziren giza-kiaren oigibide, izadiak berezkoak zituenetatik

jasotzen ziren janari eta janziak, beste gabe. Ingu-ruetako berezko emankortasuna eta horretazuzenean baliatzeko gaitasunak agintzen zuen gizakien bizitza. Jaberik gabeko inguru aberatsa zen guztien aberastasun. Hori izan zen Paleolitoko bizi-ibilera.

Neolitoa, hain zuzen, egoera hori errotik aldatzera helduko da. Basa-landareak labore bihurtzen asmatu zuen gizakiak, eta piztiak etxeko abere. Horrek ondorio emankorrak ekarrituen: garai bateko gizaki biltzaile eta ibiltaria egonkortu egin zen, bizileku jakinetan finkatu; familiarte eta leinu zabal-letan bildu, laster auzo, herri eta hirietan elkarrekin bizitzen jarri.

Produktzioak aurrera egin zuen laborantza, artzantza edo abelzaintza ez ezik ekoizpen tekniko berrietan; orduan agertu ziren artisau berriak, ehungintza, otargintza edo eltzegintza garatu zituzten, beti ere gero eta antolatua ageri zen gizarte neolitotarrari baliabide tekniko-ekonomiko berritzaileak eskainiz.

Modu berrian antolatutako gizarteak, bestalde, tekniketarik haragoko galdera eta erantzunak ere burutan zituen: adibidez, zer zen izadiaren baitan ageri zen bizia, gizakiak ere neurriren batean goberna zezakeena; nondik zetorren berori, norantz zihoan, nola segurtu zitekeen izadiaren halako emankortasuna; kalte eta hondamendien “jauna” nor ote zen. Natura besarka ezinaren baitan zein zen gizakiaren tamaina eta esanahia?



Erlijiotasun berritu-aberastua

Horrelako galdera arrunt edo funtsezkoer erantzuna eman nahirik haziz joan zen Neolitoan kezka erlijiosoa, Izadia modu berrian begiratu eta ulertzera. Gizakiak susta zezakeen bizia, eta jainkoen eskuetatik zuzenean jaso zitekeena elkarren lagungarri edo enbarazu izan zitezkeen... Ideologiak sortu ziren mundua eta gizartea antolatzeko, eta eraikitako lehenengo tenpluak (Göbekli Tepe, K. a. 9.500).

Izadiko indar ezezagun eta misteriosuetatik haragoko jainkoak agertu ziren orduan: emakume-irudiek emankortasunaren ama-jainkosa izan nahi zuten, eta zezen-irudiek, berriz, jainko bizi-sortzailea eta indarra irudikatu zituzten. Neolitoa "jainkotasunen aroa" izan zen, eta "sinboloen iraultza" ekarri zuena (J. Cauvin), betiere erlijio kosmiko baten barruan.

Izadia ulertu eta menderatzeko baliozkoak suertatu zitzaizkien neolitotarrei magia edo xamanismoa, baina erlijiotasun hark bestelako urratsik ere eman zuen bere erlijio-mundua eratzean: jainko-jaiak nortasuna irabazi zuten, gero eta zehatzagoa gainera, mitologiako jainko izen-abi-zendunak izatera iristeraino. Mendeak pasatu ahala, kultura ezberdinetan eta osteratzeko gisatan agertuko zaizkigu jainko neolitotarrak; herri anitzetan, sakabanatuak, edo, alderantziz, hainbat kultura klasikotan antolakuntza mitologiko jakinetan eratuta (guretzat ezagunenak, Grezia eta Eromakoak dira).

Euskal Neolitoak bere kronologia eta aztarnategiak ditu, noski: lehen albistea, orain 6.000ren bat urte ingurukoa da, Nafarroako Abaurregaineko Zatoian aurkitutako zeramika da, Urnietako Marizuloko giza gorpuzki eta zakur-ardiak, orain 5.285 urtekoak.

Euskal Herriko hondakin neolitikoak, mota

bateko edo bestekoak, 20ren bat lekutan topatu dira gutxienez, Hegoaldeko lau herrialdeetan eta Lapurdin; Araba da honetan aberatsena, bere bederatzi aztarnategirekin.

Errenka ederra osatzen dute berauek, hona herriz herri emanda: Bizkaian hiru (Arenatza, Galdamesen; Santimamiñe, Kortezubin; Kobeaga, Ipazterren), Gipuzkoan bi (Herriko Barra, Zarautzen; Marizulo Urnietan). Araban bederatzi (Bernillo, Subilla Morillas-en; Fuente Hoz, Antezan/Anucita; La Renke, Santurden; Montico de Charratu, Trebiñuko Albainan; Los Husos, Bilaren; Peña Larga, Kripanen; Atxoste eta Kanpanoste Goikoa, Birgara Goiienen; Mendandia, Trebiñuko Sasetan), Nafarroan bost (La Peña, Marañonen; Urbasa 11; Abauntz, Ultzamako Arraitz-Orkinen; Zatoia, Abaurregainean; Padre Areso, Biotzarin) eta Lapurdin bat (Moulligna, Bidarten).

Arkeologoen denetik bilatu izan dute horietan guztietan, eta baita datu zehatzak jaso ere: klima, garaiko labore, abere hezi berri (zakurra berehala, ardi eta ahuntza laster, geroago behi eta zerria) edo janariei buruz (laborantza eta abelzaintzatik sortuak, edo itsaskiak). Artean, luzaro iraun zuten aurreko aroetatik zetozen fruitu-bilketak eta ehi-zak galdu gabe, horrek guztiak erro-errotik aldatu zuen Euskal Herriko gizartea.

Aurreko mendeetan baino indartsuago agertuko zaigu Neolitoan hildakoen mundua, nahiz eta gurean dugun gorpuzki-aztarnategi handiengan apenas ageri den garaiko balio sinboliko nabaririk. Aztarnategi aberatsen hori Arabako Guardiako San Juan ante Portam Latinam deitua du, bere 300 eta gehiago hildakoren hondakinekin.

Partez, Neolitoa ere hartzen duten eraikin megalitotarrei buruz zer bait esateko aukera hurrengo batean izango dugu.

Joseba Intxausti